

# NOIZ ARTE

bihar arte

igande(ra) arte

sanjuanak arte

datorren urte(ra) arte

maiatzaren 25(era) arte

maiatzaren azken egunak/egunetara arte

Mendebaldeko euskalkiek jotzen dute halakoetan –eRA atzizkira:

igandera arte (Ek.: igande arte)

datorren urtera arte (Ek.: datorren urte arte)

maiatzaren 25era arte (Ek.: maiatzaren 25 arte)

hurrengora arte (Ek.: hurren arte)

# NORAINO

etxeraino

Donibaneraino

urruneko izarretaraino

ehuneraino

zazpigarren koadroraino

azken ondorioraino/ondorioetaraino

# Hala ere:

Denborazko adizlagunen batekin ere ager daiteke **-eRAINO** atzizkia.

**gaurdaino** (= gaur arte)

**egundaino** (= egun arte / egundo, sekula)

**oraindaino** (= orain arte / oraino, oraindik)

Lekuzko izen batzuekin, denborazko adiera nagusitu daiteke **-eRA ARTE** moldean:

- ◇ **Bilbora** (heldu) **arte** ez gara jaitsiko trenetik.
- ◇ Gustura irakurtzen ari zen, **azken kapitulura** (iritsi zen) **arte**.

Mendebalde-muturreko hizkera batzuetan,  
-eRAINO atzizkiaren lekua hartzen du **-eRA**  
**ARTE** moldeak (NORA ARTE), baina arauz  
kanpokoak dira estandarrean:

- ◇ Ezetz heldu **tontorrera arte!**  
(erabili: **tontorreraino**)
- ◇ **Aritxatxura arte** hedatu zen petrolio-orbana.  
(erabili: **Aritxatxuraino**)
- ◇ **kokotera arte**  
(erabili: **kokoteraino**)

# Aditz jokatugabeekin

## NOIZ ARTE

**Ezkundu arte** bizi izan zen han.

**Irabazi arte**, ez dugu etsiko.

# Aditz jokatugabeekin

## NORAINO (ZENBATERAINO, ZER NEURRITARAINO)

Handiena **izateraino** hazi zen.

Zor handiak egin zituen, azkenean etxea  
ere **galtzeraino**.

(**Hots:** Zor handiak egin zituen; hain handiak, ezen azkenean etxea ere  
galdu baitzuen.)

# Erne!

Dardarka **hasi (zen) arte**, inor ez zen konturatu urduri zegoela.

Dardarka **hasteraino** urduritu zen.  
(\*Dardarka hasi arte urduritu zen)



# Erne!

**Nekatu arte**, poliki jardun du  
arraunean.

Eskuak **urratzeraino** jardun du  
arraunean.  $\neq$  Eskuak **urratu (zituen)**  
**arte** jardun du arraunean.

Beraz, ikusi ditugun aldaeratxoak gorabehera, bereizkuntza garbia dago bi moldeen artean.

ARAUA: ARTErekin osatutako moldea denbora adierazteko baino ez erabili.

Bestetik, gogoan izan -TZERAINO moldea badela, bere esanahi bereziarekin (ZER NEURRITARAINO), eta ezin dela ordezkatu -TU ARTE moldearekin, molde horrek denbora adierazten duelako, hain zuzen ere (NOIZ ARTE).